

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Bezeroekin harremana izatea eta mantentzen jakitea ezinbestekoa da produktuaren informazioa jasotzeko. Hala nola, zer nolako arazoak ditu, gero hauek konpontzeko, edo nola izan den arrera gure bezeroen artean.

Gaur egungo gizartean, hainbat modu daude bezerokin harremanetan egoteko, Adibidez telefonoz, denda fisiko baten edo web-orri baten bitartez.

Baina gure bezeroak, ezintasun bat dutenez, garrantzitsua da haiekin kontaktatzeko modu egokia topatzea. Irratia eta telebista aukeratu ditugu, izan ere gure bezero mota itsua denez, bakarrik entzutean jakingo du gure produktua existitzen dela. Baina web-orri bat ere sortuko dugu, lagun edo senide baten laguntzaz sar daitekeena eta hor hobeto egongo da gure produktua azalduta, prezioekin, deskontuekin etab.



Gainera bezeroen kezkek, edo galderak erantzuteko telefono zenbaki bat emango dugu publizitatea egiten dugun bakoitza. Honekin bezeroei laguntzeaz gain gure produktua nola hobetu edo nola konpontzeko informazioa lortu dezakegu. Horrez gain bezeroen iritzia eta edukitako esperientziak jakin dezakegu.